# IRAGARKIAK

## Beste iragarki ofizial batzuk

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 4117

*IRAGARKIA, 2020ko irailaren 14koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen saileko Arabako lurralde-ordezkariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita gas naturala banatzeko sarearen honako proiektu hau: Arkautiko Gunea – Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia (Vitoria-Gasteiz, Araba).*

Jendaurrean jartzen dira behean zehazten den jarduketa, bai eta eskatzailearen arabera desjabetu beharreko ondasun eta eskubideen banan-banako zerrenda zehatza ere, xedapen hauetan ezarritakoaren ondorioetarako: Gas erregaien kanalizazio bidezko banaketa-instalazioei eta garraioari buruzko administrazio-baimenen prozeduren ekainaren 9ko 76/2020 Dekretuaren 16. eta 34. artikuluak; Hidrokarburoei buruzko urriaren 7ko 34 /1998 Legearen 104. artikulua, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikulua:

– Eskatzailea: Nortegas Energía Distribución SAU; helbidea: Concha Jeneralaren kalea, 20 (48010 Bilbao).

– Eskatzen direnak: administrazio-baimena, exekuzio-proiektua onartzea eta onura publikoaren deklarazioa.

– Xedea: etxebizitza- eta merkataritza-sektorearen hornidura-premiak eta -eskaerak asetzea, Arkautiko gunean.

– Erreferentzia: 01CGY 202000002.

Gas naturala banatzeko sarea: Arkautiko Gunea – Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia.

– Udalerriak: Vitoria-Gasteiz.

– Proiektuak eraginpean hartzen dituen ondasun eta eskubideak: iragarki honen eranskinean jasotakoak.

– Aurrekontua: 246.198,25 euro.

Eta guztiek jakin dezaten ematen da argitara esandakoa, eta batez ere proiektuek eraginpean hartzen dituen lurren jabeak eta gainontzeko titularrak jakitun egon daitezen (Jabe eta titular horien zerrenda iragarki honen amaieran jasotzen da), hain justu ere proiektua aztertzeko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Arabako Lurralde Bulegoan (Vitoria-Gasteizko Samaniego kaleko 2an), dagokion udalean edo www.euskadi.eus web-orrian (Energia eta Meategiak/Energia ataleko Proiektuei buruzko Informazioa azpiatalean: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/energia-meategiak/hasiera/), eta aipatutako tokietan egokitzat jotzen diren alegazioak aurkezteko, bakoitzaren bi ale betiere. Horretarako, hogei eguneko epea egongo da, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 14a.

Arabako lurralde ordezkaria,<br>
JESÚS PASCUAL LORENTE.

ERANSKINA

Proiektuaren eraginpeko ondasunak eta eskubideak
Gas naturala banatzeko sarea: ARKAUTIKO GUNEA - POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA
Vitoria-Gasteiz (Araba).

| Finka zk. | Katastroko erreferentzia | Titularra | Bide-zorra | Aldi baterako okupazioa | Ezaugarriak | Plano zk. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AR-VIT-01 | 20. poligonoa, 6. partzela. 592000060G00000000MV | Administrazio Batzarra | 65 m | 495 $m^2$ | Landa-azpipartzela G | NG-P-001 |
| AR-VIT-02 | 20. poligonoa, 6. partzela. 592000060I00000000MU | Administrazio Batzarra | 25 m | 190 $m^2$ | Landa-azpipartzela I | NG-P-001 |
| AR-VIT-03 (Vitoria-Gasteiz) | 20. poligonoa, 6. partzela. | Arkautiko Administrazio Batzarra | 50 m | 250 $m^2$ | Hiri-azpipartzela B (baratzeak) | NG-P-001 |
| AR-VIT-04 (Vitoria-Gasteiz) | 20. poligonoa, 10. partzela. | Pablo Mtnez. Agirre<br>Santiago Mtnez. Agirre<br>Eugenio Mtnez. Agirre | 80 m | 610 $m^2$ | Hiri-lurzorua (baratzeak) | NG-P-001 |
| AR-VIT-05 | 20. poligonoa, 377. partzela. 592003770B00000000AQ | Administrazio Batzarra | 205 m | 1.530 $m^2$ | Landa-lurzorua | NG-P-001 |
| AR-VIT-06 (Vitoria-Gasteiz) | 20. poligonoa, 152. partzela.<br>592001520A00000000FN<br>592001520B00000000FT<br>592001520C00000000FZ | M. Rosario Fernandez de Landa | 170 m | 1.340 $m^2$ | Landa-lurzorua (laborea) | NG-P-001 |
| AR-VIT-07 | 20. poligonoa, 380. partzela. 592003800A00000000EP | Investigación y Desarrollo Agrario SA | 60 m | 445 $m^2$ | Landa-lurzorua | NG-P-001 |
| AR-VIT-08 | 20. poligonoa, 151. partzela. 592001510A00000000MS | Investigación y Desarrollo Agrario SA | 150 m | 1.190 $m^2$ | Landa-lurzorua | NG-P-001 |
| AR-VIT-09 | 20. poligonoa, 381. partzela. 592003810A00000000KX | Investigación y Desarrollo Agrario SA | 160 m | 1.270 $m^2$ | Landa-lurzorua | NG-P-001 |

| Finka zk. | Katastroko erreferentzia | Titularra | Bide-zorra | Aldi baterako okupazioa | Ezaugarriak | Plano zk. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AR-VIT-10 | 20. poligonoa, 150. partzela. 592001500A00000000GX | Investigación y Desarrollo Agrario SA | 380 m | 3.040 $m^2$ | Landa-lurzorua | NG-P-001 |
| AR-VIT-11 (Vitoria-Gasteiz) | 20. poligonoa, 389. partzela. | Administrazio Orokorra edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa | 65 m | - | Hiri-lurzorua (sarbidea) | NG-P-001 |
| AR-VIT-12 (Vitoria-Gasteiz) | 20. poligonoa, 390. partzela. | Administrazio Orokorra edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa | 170 m | - | Hiri-lurzorua (sarbidea) | NG-P-001 |
| AR-VIT-13 (Vitoria-Gasteiz) | 20. poligonoa, 391. partzela. | Administrazio Orokorra edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa | 15 m | - | Hiri-lurzorua (sarbidea) | NG-P-001 |